

Irudimen eta heziketa soziolinguistikoa. Herrialde Katalanetan heziketa soziolinguistikoa dibulgatzea eta lantzea

Jordi Solé i Camardons

Filologoa eta soziolinguista

jsole12@xtec.cat

Sarrera-data: 2011-06-27 | Onartze-data: 2011-07-30

Laburpena. Herrialde Katalanetan heziketa soziolinguistikoaren bilakaera azaltzen du Solé irakasleak artikulu honetan. Miquel Siguán-en elebitasunaren inguruko gogoetatik abiatuta Aracilen ekarpenak aipatzen ditu ondoren. Bere iritziz, gizarte-hezkuntzari buruz, balioen hezkuntzari buruz, kultur arteko hezkuntzari eta kulturantzunari buruz hitz egiten den bezala, heziketa soziolinguistikoaz ere hitz egin behar da. Gainera, behar hori ez du ikasleengan soilik sumatzen, irakasleengan ere gabezi hori ikusi baitu. Horrela bada, Herrialde Katalanetan argitara eman diren soziolinguistikako eskuliburu eta beste argitalpenen berri ematen du. • **Hitz-gakoak:** *Herrialde Katalanak, hezkuntza, soziolinguistika, normalizazioa.*

Abstract. Sociolinguistic imagination and training. Spreading and working on sociolinguistic training in the Catalan Countries. In this paper Prof. Solé deals with the evolution in sociolinguistic training in the Catalan Countries. He goes on to refer to Aracil's contributions starting from a reflection on bilingualism of Miquel Siguán. In his view, just as one speaks about civic and social education, education in values, intercultural education and multiculturalism, so must one speak about sociolinguistic education, too. What is more, that need is not only perceived in students, the gap has also been detected among teachers. He also provides information about the sociolinguistics guidebooks and other publications that have been published in the Catalan Countries. • **Key Words:** *Catalan Countries, education, sociolinguistics, normalisation.*

Lan honek aldi berean hainbat gairi buruzko gogoeta izan nahi du; hau da, irudimen eta heziketa soziolinguistikoak sortu duenari buruzkoa, diziplina hau irakaskuntzan dibulгатzeko egindakoari buruzkoa, ezagutza soziolinguistikoaren beharrari buruzkoa eta irakasleek soziolinguistika lantzeari buruzkoa.

Arreta Bigarren Hezkuntzan jarriko dugu, baina erreferentziak egingo dizkiogu testuinguru orokorrari, baita unibertsitate-munduari ere.

Gure ustez, Katalunia eta Herrialde Katalanak gatazkaren soziolinguistikaren abangoardian egon dira XX. mendeko 20ko eta 30eko urteetan zenbait hezitzailek diskurtso aurre-soziolinguistiko berri bat sortu zutenetik. Hezitzaile horien adibide esanguratsuak dira Alexandre Galí, Carles Salvador eta Delfí Dalmau¹.

Gainera, ikuspegi soziolinguistikoaren eklosioa gertatu zenean, Rafael Lluís Ninyoles eta Lluís V. Aracil soziologo valentziarren irakaspenak hartu ziren abiapuntutzat, haiek hasi baitziren ildo horretan zentratutako hausnarketak egiten. F. Vallverdú eta soziolinguistika lantzen zuten beste asko ia-ia ez ziren urrundu ildo nagusi horretatik, soziolinguistikaren barneko aniztasuna arlo askotan hedatzen joan arren. Hala ere, lan honetan ezin ditugu aztertu guztien proposamen teoriko eta ideologikoak, irakaskuntzan ezagutza soziolinguistikoa dibulгатzeko eta lantzeko moduan zentratzeko eskatu baitigute.

Hain gai zabalaren iruzkin objektibo samar bat egiteko, Herrialde Katalanetan soziolinguistika lantzeko ditugun tresna bibliografikoetan oinarrituko gara. Halaber, beste hezkuntza-esperientziak, hizkuntza-militantzia eta egitasmo instituzionalak aipatuko ditugu.

Premiak organoa sortzen duela egia bada, azkenean funtzionatzeko modua organoaren arabera dela ere egia izango da. Aztertzen ari garen gai honetan, Lluís V. Aracil irakaslearen 1979ko “Educació i sociolingüística” lan garrantzitsua hartzen dugu abiapuntu gisa.

Aracilek aspaldiko 1979 hartan idatzi zuenaz jardungo gara eta gutxi gorabehera azken hogeita hamar urteotan gertatu denarekin konparatuko dugu.

ARACILEN PROPOSAMENETIK ERREALITATERA

Aracilen lanak Estatu Batuetako esperientzia eta Herrialde Katalanen kasua konparatzen zituen. Lehenengoan, soziolinguistikaren suspergari nagusia hezkuntza zen; eta bigarrean, aldiz, momentu hartara arte ikerketa soziolinguistikoak ez zuen hezkuntzatik onurarik atera. Ordura arte, hezkuntza-arloko ekimen gehienek “elebitasun” errotulua onartzen

Aracilen arabera, hezitzaileek, hizkuntza pairatzen dugun arazotzat eduki beharrean, ulertu beharreko gaitzat hartzen saiatu beharko lukete.

“Gaur egun, hainbat gairi buruz hitz egiten da: gizarte-hezkuntzari buruz, balioen hezkuntzari buruz, kultur arteko hezkuntzari eta hezkuntza kulturantzunari buruz. Baina badirudi heziketa soziolinguistikotik baten beharra ezin dugula ulertu”.

zuten, 1928an Luxenburgon egindako I. Elebitasun Kongresuan ezer aldatu ez balitz bezala. Horren adibide dira Miquel Siguan-en mahaiburutzapean egindako “Elebitasun Mintegiak” (ikus *Bilingüisme i educació*, 1976).

Aracilen arabera, hezitzaileek, hizkuntza *pairatzen* dugun arazotzat eduki beharrean, ulertu beharreko gaitzat hartzen saiatu beharko lukete.

Hezkuntzan soziolinguistika lantzeko egiten ziren “kultura- eta jolas-jarduerak” eskasegiak iruditzen zitzaizkion. Bestalde, hitzarekiko interesa, hezkuntza-eramaile den aldetik, eta hizkuntza, ikasgai oinarrikoagoa den aldetik, lotzea berebizikoa zela pentsatzen zuen. Egilearen esanetan, hizkuntza-erabileraren garrantzia ikusteko nahitaezkoa zen bi gai kontuan izatea; ez bakarrik hizkuntza erabiltzeko *modua* (kontu horrek azken ehun urteotako hizkuntzaren defendatzaileak itsutu ditu), baita hizkuntza erabiltzea bera ere, bere izatean eta izate horren baldintzetan, egituraz eta funtsaz gramatikariak arduratzen baitziren.

Hain zuzen ere, bere ustez, hizkuntza deskribatu baino gehiago kokatu egin behar zen; hau da, erabilera-eremuetan, bai lurraldeari eta bai gizarteari dagokionez, hizkuntza jakin bat badagoen edo ez dagoen argitzea. Adibide bat jartzearren, Nova Cançó katalanaren iraultza soziolinguistikoa modu berezi batean aztertu beharreko fenomenoetariko bat izango litzateke.

Izan ere, aipatutako artikulua gatazkaren soziolinguistikaren gako (ia-ia) guztiak jorratzen zituen eta izenburuak sortutako itxaropenak gainditu zituen. Gainera, soziolinguistikaren irakaskuntza esplizituki lantzen ez zuen arren, gure gazteen heziketa soziolinguistikorako egitasmo bat garatzean kontuan izan behar diren funtsezko puntuak azaltzen zituen.

Hezkuntza etorkizunera bideratutako jarduera bat da eta gizarte baten etorkizuna baldintzatzen du. Beraz, hezitzaileek hizkuntza-erabilerako arau berriak irakatsi ditzakete. Aracilen ustez, irakatsi beharko liratekeen arau berriak indarrean dauden arauen aldaketa iraultzailea izango lirateke (SL iraultza) eta, kontu horri dagokionez, hezitzaileek inizatiba hartu eta esaten dutena egin beharko lukete.

Beste batzuetan esan dudana moduan: “Gaur egun, hainbat gairi buruz hitz egiten da: gizarte-hezkuntzari buruz, balioen hezkuntzari buruz, kultur arteko hezkuntzari eta hezkuntza kulturantzunari buruz, hizkuntza-gaitasunen hezkuntzari buruz... Baina badirudi heziketa soziolinguistikotik baten beharra ezin dugula ulertu”³.

Irakasle batek ikasgelan edota ikastetxe bateko klaustroan erretzea *hezibide txarrekoa* eta eraso delatzen pentsatzen da. Baina ez, ordea, irakasle horrek ikasleei eta lankideei bizi den eta lan egiten duen nazioko berezko hezkuntzan ez hitz egitea. Zergatik ez da modu berean pentsatzen horrek

eremu ekolinguistikoari edota hizkuntza-erabileren iraunkortasunari erasotzen diotela?

Irakaskuntzako profesionalen artean ere, zergatik esaten da hizkuntza-aukeraketa jakin bat hezkuntza-ondoriorik eta ondorio sozial, etiko eta ekologikorik ez duen aukeraketa guztiz *personal* dela? Ezarritako ordena soziolinguistikoa, katalana mendean hartzen duena, indartzen duen edozein hizkuntza-aukeraketak eremu soziokultural eta linguistikoa katalana suntsitzea esan nahi du, kostaldetik gertu edo ibai baten iturburuan petrolioa etengabe isurtzea bezalaxe.

Proposatzen dugun norabidean erabakitasunez lan egin dela esan al dezakegu? Heziketa soziolinguistikoaren beharra kontuan hartu duen hezkuntzako hizkuntza-politikarik egon dela esan al dezakegu? Oso partzialki bakarrik. Lehen Hezkuntzan hizkuntza-murgilketak erritmo onean jarraitu du. Hala ere, 2011n bisitatutako Bigarren Hezkuntzako edozein ikastetxetan irakasleen gutxiengo batek bakarrik erabiltzen du beti katalana ikasleekin eta lankideekin hitz egiteko. Bartzelonan eta gerriko industrialeko herrietan, esaterako, gutxi gorabehera irakasleen %5-20ek bakarrik, ikastetxearen arabera.

Oso bestelakoa izango litzateke besteak beste Osona eskualdean egiten diren esperientzia guztiz normalizatazailak aztertzea, egoera soziala lagungarriagoa baita.

Hezitzaileek oso argi izan behar dute, erabilera-arauak hizkuntza-leialtasunaren ildora gerturatzeaz ari garenean, ez garela ari “moral” kontuez, ekologia kontuez baizik (Txepetxek eta beste egile askok esan duten bezala); hau da, bizitza katalanez egin ahal izateko eremu (sozio)linguistikoa babesteaz. Horregatik zabaldu nahi izan dut ekoidiomatikaren ideia.

Aracilen ustez, hezitzaileen betebeharra da ikasleei gaztelaniak katalanaren erabilera-eremuak nola hartzen dituen irakastea. Urte hauetan guztietan autonomia zaindua bizi izan dugun arren, errealitate hori oraindik ez da desagertu.

Katalanaren historia sozial eta politikoa ezagutzea oso garrantzitsua izan beharko luke. Aracilen garaietan tabua zen eta hogeita bost urte geroago ere tabu izaten jarraitzen duen gai bati buruz hausnartzen ere ikasi beharko lukete ikasleek. Arazoak ulertzea, jakinaraztea eta eztabaidatzea baliagarria izango litzateke errealitate soziolinguistikoaren aurrean norberak bere jarrera askatasun handiagoarekin eta jakinaren gainean egonda erabaki ahal izateko.

Gainera, guk ere uste dugu hezitzaileek ez luketela gramatika arauemailea bakarrik irakatsi beharko eta argi eta garbi ikusi beharko lituzketela normatibizazioaren bi norabideak: batetik, barneko aniztasuna bateratzea

Aracilen ustez, hezitzaileen betebeharra da ikasleei gaztelaniak katalanaren erabilera-eremuak nola hartzen dituen irakastea.

“Gramatika-ikastarotxoak egin beharrean (...) gramatikari buruzko hitzaldi bat duten soziolinguistika-ikastarotxoak antolatu beharko lirateke”.

(finkatzea); eta bestetik, aniztasun hori hedatzea eta aberastea (lantzea). Aracilek, hitzez hitz, honakoa zioen: “Gramatika-ikastarotxoak egin beharrean (...) gramatikari buruzko hitzaldi bat duten soziolinguistika-ikastarotxoak antolatu beharko lirateke”.

30 urte baino gehiagoren ondoren, Kataluniako Generalitateko Katalanaren Irakaskuntza Zerbitzuen (SEDEC) ahalegina azpimarratu behar dugu. Lehen Hezkuntzako irakasleentzat soziolinguistikari buruzko bi hitzalditako zikloak antolatu izan dituzte, baita ikastetxeetako hizkuntza-dinamizatzaileentzat hiru eta lau hitzalditako topaketak eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat soziolinguistika-jardunaldiak ere.

Azpimarratu beharra dago duela sei urte LIC (Gutxitze Bidean dauden Hizkuntzen, Kulturartekotasunaren eta Kohesio Sozialaren Hezkuntza Zerbitzua) aholkularitza sortu zela immigrazioaren gorakadari aurre egiteko eta ikastetxeetan katalanaren erabilera dinamizatzeke.

Hezkuntza-esperientzia horrek, aurrerago aipatuko dugun moduan, Harrera Gelen antolaketa indartzeko balio izan du. Gela horietan, ikasle etorkinak hartu eta katalan-ikastaro trinko bat ematen zaie. Oso emaitza onak izan ditu Lehen Hezkuntzan, baina ez hain onak Bigarren Hezkuntzan (HGtik gela arruntera joaten denean, ikaslearen katalanaren ezagutzek ez dute hobetzen jarraitzen eta erabilera-arauak hitz egiten duen gatzelerakoekin bateratzen ditu). Gainera, hizkuntza-murgilketarako estrategiak berriz planteatzen lagundu du eta emaitzak askotarikoak izan dira. Nolanahi ere, eta Ikastetxeko Hizkuntza Egitasmoak onartu arren, estrategia horiek ez dute Bigarren Hezkuntzako funtzionamenduan eraginik izan. Izan ere, ereduzko dokumentu bihurtu dira, baina irakasleek oso gutxitan gauzatu dituzte.

LIC planaren lehenengo bi urteetan Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat birziklapena egin zen. Horren bidez, soziolinguistikaren egoerari buruzko gogoeta sakona egiten zen eta diziplinaren kontzeptu-esparrua lantzen zen.

Balear Uharteetan, Printzerriko atzerritarren ehunekoa berdina edo handiagoa izanda, egoera ez da Kataluniako Autonomia Erkidegokoa baino hobea. Bernat Joan-ek soziolinguistikari buruzko hitzaldiak eman dizkie irakasleei; Valentziako eta Ipar Kataluniako katalaneko irakasleek, ordea, soziolinguistikako birziklapena egin nahi bazuten, beren kabuz egin behar izan zuten.

Lehen Hezkuntzan, Federació Escola Valencianaren lan eredugarria nabarmentzeko modukoa da. Proposamen akademikoenak eta hezkuntza-aktibismo soziolinguistikoa elkartu dituzte, gobernu valentziarraren anti-soziolinguistikari eta hizkuntza-politika genozidari kontra egiteko.

Hala eta guztiz ere, inon ere ez, autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sail batek berak ere ez du irakasleen heziketa soziolinguistikoa hobetzeko beharrik ikusi. Irakasle asko nazkatuta gaude duela 10-15 urte jasaten genituen lankideen hizkuntza-desleialtasun berberak pairatzeaz, baita diskurto, aitzakia eta aurreiritzi berberak entzuteaz ere. Hizkuntza-koordinaziorako batzordeek (dauden lekuetan) ezin diete hainbeste axolagabetasuni kontra egin.

“Educació i sociolingüística” liburuan, egileak hizkuntzaren etorkizunean pentsatzen zuen eta erantzukizunak hartzeko eta batasun soziolinguistikoa katalana indartzeko eskatzen zuen. Esan beharra dago aurre-rapauso gutxi egin direla batasun horretan: IEC Ikerketa Katalanen Institutua saiatu da, baina ezin izan du eragotzi Hizkuntzaren Valentziako Akademia (AVL) sortzea; PPko gobernu autonomikoak TV3 telebista katalanaren seinalea pixkanaka kentzen joan dira Valentzian, telebista-katea etsaia izango balitz bezala; eta Herrialde Katalanetan hizkuntza-politika normalizatzaileak egiteaz arduratuko den erakunde bateraturik ez da sortu. Lurralde bakoitzak bere erritmoan egin du aurrera edo atzera, koordinaziorik eta batasun estrategikorik gabe. Dagoen batasun-esparru bakarra Estatua da, horrek dakartzan ondorio guztiekin.

SOZIOLINGUISTIKAKO ESKULIBURUAK ETA BESTE ZENBAIT ARGITALPEN

Aracilen espiritu hura soziolinguistikako bi eskulibururen oinarria izan zen: Toni Mollà eta C. Palanca-ren *Curs de sociolingüística* (1987) eta Jordi Solé Camardons-en *Sociolingüística per a joves* (1987). Lehenengoaren liburuki gehiago egin ziren (2. liburukia 1989an eta 3. liburukia 1991ean) beste gai batzuk lantzeko. Horien argitaraldi bakar bat egin zen eta, aurrerago, beste liburuki batean, laburtutako moldaketa bat argitaratu zen (*Manual de sociolingüística*, 2002).

Sociolingüística per a joves (1991ean egin zen euskarazko itzulpena, *Soziolinguistika Gazteentzat*) 14 aldiz berrargitaratu zen lehen 10 urteetan eta, besteak beste, Balear Uharteetako Bigarren Hezkuntzako institutu guztietan erreferentzia-liburua izan zen urte horietan. Gainera, garrantzi handia izan zuen Valentzia eta Kataluniako Printzerriko institutuetan, Herrialde Katalanetako irakasle-eskoletan, eta gutxiago filologia-fakultateetan. Ez dakigu nola landu zuten liburua urte horietan (batzuetan irakasleak ikasleei liburua laburtzeko bakarrik eskatzen zieten; beste batzuetan, ordea, ikasleei hizkuntza-safariak egitera bultzatzen zitzairen inguruko errealitate soziolinguistikoaz jabetzeko; beraz, segur aski, gomen datu duten irakasle adina lantzeko modu egongo dira), baina izan zuen eraginaz konturatzeko hona hemen datu batzuk: 50.000 ale inguru egin ziren eta ehunka fotokopia, Interneteko “Rincón del Vago” web orrialdean

Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sail batek berak ere ez du irakasleen heziketa soziolinguistikoa hobetzeko beharrik ikusi.

**Sociolingüística
per a joves
(1991ean egin
zen euskarazko
itzulpena,
Soziolinguística
Gazteentzat) 14
aldiz
berrargitaratu
zen lehen 10
urteetan .**

erreferentziak egin zitzaizkion eta ikastaroak antolatu ziren Doktoreen eta Lizentziadunen Elkargoan eta katalandun lurraldeetako hainbat hezkuntza-erakundetan.

Garai hartako UBiko eta Batxilergoko liburuak eduki soziolinguistikoko asko izaten zituzten eta, hein handi batean, liburu honetan eta irakasleen eskura zeuden beste batzuetan oinarrituta zeuden, curriculum ofizialetako edukiek horrela xedatzen baitzuten.

Adibide esanguratsua da Cruilla argitaletxearen Batxilergoko lehenengo mailarako Katalaneko testuliburua (2002). Lau liburukietatik, soziolinguistikari buruzko honako gai guztiak “Hizkuntza eta Gizartea” izenekoan bilduta zeuden: hizkuntza, gertakari soziala, gizarte-taldea eta komunikazio-gertakaria, hizkuntza-komunitatea, hizkuntza-erabilera, soziolinguística, hizkuntza-ukipena, ukipen-fenomenoetara hurbilketa (elebitasuna, diglosia, hizkuntza-gatazka), ukipen-dinamikak; munduko hizkuntzak: talde-aniztasuna, hizkuntzen sailkapena, erabilera-irizpideak (hizkuntzaren estatusa, hizkuntzaren bizitasuna, hizkuntzak eta hiztun-kopurua, hizkuntzak eta banaketa geografikoa); Europako hizkuntzak, Europako hizkuntza-politika, esparru katalana. Eta oraindik “Hizkuntza Erabilera” ataleko edukiak gehi genitzake, soziolinguística funtzionaleko gaiak jorratzen baitzituen; esate baterako, komunikazio-prozesua, diskurtsoak, egokitzapena eta hizkuntza-erregistroak. Ia-ia liburuaren erdia.

Valentzian, Rosa Sanzek eta Francesc Ruizek *Quaderns d'activitats* (1990) argitaratu zuten eta soziolinguistikaren ikuspuntutik abiatuta ikasteko eta lan egiteko proposamen interesgarriak egin zituzten. *Text i context. Lectures des de la sociolingüística* (1991) liburuan, Solé i Camardons testuen iruzkin soziolinguistikoa egiten ditu, Ramon Lullen testuetatik XIX. mendearen amaierakoetaraino. Ikuspegi horrekin berarekin, *Les paraules del futur* (1995) argitaratu zuen. Liburu horretan, zientzia-fikziozko eta fikzio espekulatiboko literaturako testuen iruzkin soziolinguistikoa egitea proposatu zuen.

Mallorcako Unibertsitateko Antoni Artigues-ek eta Rosa Calafat-ek (1998) ere ekarpenak egin zituzten. Carme Junyent-ek, bere aldetik, *La diversitat lingüística* (1999) argitaratu zuen Batxilergoko ikasleentzat, eta GELAko lankideekin batera (Arriskuan dauden Hizkuntzen Ikerketa Taldea) *Quadern d'ESO de la diversitat lingüística* (2000) proposatu zuten; Unibertsitatetik etorritako proposamen eskasetariko bat.

Esan beharra dago Emili Boix-ek eta F. Xavier Vila-k unibertsitaterako gidaliburu osoa argitaratu zutela, *Sociolingüística de la llengua catalana* (1998) izeneko, eta horrekin aurreko proposamen akademikoak garatu

zituztela: G. Gimenoaren eta B. Montoyaren *Sociolingüística* (1989), Miquel Pueyo-ren *Llengües en contacte en la comunitat lingüística catalana* (1991) eta Solé i Camardonsen *Iniciació a la sociolingüística* (1992).

Bigarren Hezkuntzan soziolinguistikako edukiek izan zuten arrakasta aprobetxatuz, 1993. eta 1994. urteen artean, M. Lluïsa Pazosek Oikos-tau argitaletxean Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako soziolinguistikako bilduma labur bat zuzendu zuen. Liburu horietako batzuk dira *Llengua i variació*, *Llengua estàndard en l'ensenyament*, *Història de la llengua catalana* eta *El jovent opina*.

Aipagarriak dira 1995. eta 2005. urteen artean argitaratu ziren "Contextos" bildumako soziolinguistika-liburuak; besteak beste, *Història social i política de la llengua catalana* (1996), Gabriel Bibiloni-ren *Llengua estàndard i varietats lingüístiques* (1997), Solé i Camardonsen *El poliedre sociolingüístic* (2001), Àngela Cotano-ren *Les llengües minoritzades d'Europa* (2000), eta B. Joan i Marí-ren *Un espai per a una llengua* (1998) eta *Normalitat lingüística i llibertat nacional* (2002). Azken liburu horretan, emaitza onak izan dituzten Europako normalizazio-prozesuen azterketa bat egiten da.

Bernat Joan i Marí argitaratutako liburu anitzen artean, soziolinguistikaren didaktikaren alorreko beste bat nabarmentzen dugu: *Treballar actituds lingüístiques* (2002). Azterketa osagarri gisa, oso interesgarria da Ignasi Badia-ren *Diccionari de les llengües d'Europa* (2002). *Enciclopèdia de la llengua catalana* (2001) handiak hainbat eremutako hizkuntza-erabileren egoera errepatzen du. Hala ere, ez ditu aipatzen diskurtso soziolinguistikoko katalanaren aitzindariak, ezta heziketa soziolinguistikoko arenak ere.

Kapitulu bereizi bat merezi du *Diccionari de Sociolingüística* (2001) liburuak, argitaratu den soziolinguistikako lehen hiztegia, hain zuzen. Soziolinguistikako 1.135 kontzeptu biltzen ditu, baita alor mugakidetakoa ere (hizkuntzaren gizarte-psikologia, hizkuntzaren gizarte-historia...). Corpus horretan, soziolinguistikarekin zerikusia duten beste alor batzuetako terminoak ere badaude; esaterako, soziologiakoak, historiakoak, psikologiakoak, antropologiakoak, komunikazio-zientziakoak eta politika-zientziakoak. Baina Solé i Camardonsen lehenengo soziolinguistika-eskuliburuarekin gertatu ez zen bezala, erakundeek ez zuten funtsezko obra honen dibulgazioa bultzatu; ez Unibertsitateak, ez Hizkuntza Politikak, ezta Generalitateko Hezkuntza Sailak ere. Ez zen posible egingo zuen Joan Triadú-rik egon. Gaur arte, bi mila ale inguru saldu dira, Bigarren Hezkuntzako institutuetara eta liburutegietara ez delako helarazi eta irakasleen artean ez delako sustatu. Eta argitaletxeak, oraingoz, ez du beste hizkuntzetara itzultzeko aukerarik izan.

Diccionari de Sociolingüística (2001) liburuak, argitaratu den soziolinguistikako lehen hiztegia, hain zuzen. Soziolinguistikako 1.135 kontzeptu biltzen ditu, baita alor mugakidetakoa ere (hizkuntzaren gizarte-psikologia, hizkuntzaren gizarte-historia...).

Erakundeek ez zuten funtsezko obra honen dibulgazioa bultzatu; ez Unibertsitateak, ez Hizkuntza Politikak, ezta Generalitateko Hezkuntza Sailak ere.

KULTURARTEKOTASUNA

I

Komunitate katalanerako sarrerako atea hizkuntzaren erabilera efektiboa denez, eta ez erlijioa, etnia, ezta Estatuak sustatutako hizkuntza nazional bat egoteak dakarren erabiltzeko beharra ere, duela urteak Generalitateko hainbat hezkuntza-departamentuk kultura arteko eredia hartzea erabaki zuten. Eredu horrekin, hiztun bakoitzari bere hizkuntzan egiten zaio, posible den heinean, eta katalana ikasteko ahal diren erraztasun guztiak ematen zaizkio. Horrela, ikasle etorkinen katalanaren ezagutza indartzeko, CiUren gobernuen garaian TAE (Eskola Egokitzapenerako Tailerra) izenekoak sortu ziren, eta lehenengo hiruko gobernuaren garaian Harrera Gelak eta horiei dagokien LIC hezkuntza-zerbitzua. Kataluniako Generalitateko Ongizate eta Familia Sailak 2002. eta 2005. urteen artean “*Llengua, immigració i ensenyament del català*” saileko hamar liburuki argitaratu zituen: hizkuntza eta immigrazioa, arabiera, txinera, soninkera eta mandinkera, berberera, fula eta wolofera, punjabera, errumaniera, ukrainera eta tagalaoa. *Caixa d’eines* hezkuntza-aldizkaria sortu zen. IKUS Espai LIC (webgunea).

Generalitateak Linguamón Hizkuntzen Etxea erakundea sortu zuen. Erakunde horrek hizkuntza-aniztasuna sustatzen du eta bereziki Lehen Hezkuntzan lantzeko *on line* proposamenak egiten ditu. Orain, Bigarren Hezkuntzarako “El miracle de les llengües maternes” (“Ama-hizkuntzen miraria”) proiektua sortu dute.

Rosa Sensat erakundeak, Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, *Warawarungundi* (2008) argitaratu zuen. Material horien helburua (liburua eta CDa) ikasgelako hizkuntza-iraunkortasunaren eta -aniztasunaren printzipioetan oinarrituta dagoen *curriculumeko* kultura arteko dimentsioa eta dimentsio eleaniztuna lantzea da.

Zenbait argitaletzek, Eumok, adibidez, katalana-arabiera, katalana-txinera eta katalana-amazigera liburuak egitea proposatu zuten immigrazioaren gorakada handienaren garaian, eta hizkuntza horietan egiten duten ikasle katalanentzako hainbat hiztegi argitaratu dira; katalana-txinera, esaterako.

Katalunian bizi diren etorkinen hizkuntza nagusiak ikertzeko asmoz, LIC hezkuntza-zerbitzuak liburu batzuk sustatu zituen. Beste hizkuntza batzuk hitz egiten zituzten eta katalana ez zekiten pertsonak ikasgeletan eta gizartean hartzeak zekartzan arazoei aurre egitea zen helburua. Ikas-tetxeetan katalana erabiltzeko jarduerak antolatzeaz gain, immigrazio berriaren hizkuntzak aintzat hartu dira. Nik neuk izan nuen horrelako bat proposatzeko aukera: “Apadrinem una llengua” (“Babes dezagun hizkuntza bat”).

Hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dituzten etorkinen gorakadak eragindako aldaketa aukera bat izan daiteke hezkuntzako hizkuntza-politika berriz pentsatzeko eta hobetzeko. Beraz, aldaketa irudimen soziolinguistikorekin (eta indarrarekin) egiten bada, AUKERA bat izan daiteke.

Ziur nago etorkizunean askoz ere gehiago sakondu beharko litzatekeela ikasleen hizkuntza-motxilaren aprobetxamenduan. Horretarako, EEMBren proposamenak eta, bereziki, *Hizkuntzen Portfolio Europarra* eta hizkuntza-biografia bezalako jarduerak aprobetxatu behako dira. Ez dira gutxietsi behar hizkuntzak ikasteko EuroComRom eta antzeko proposamenak, hizkuntza-senean eta iraunkortasun soziolinguistikoa oinarritutako sistema baita.

HEZIKETA SOZIOLINGUISTIKO BAT BEHAR DA

I Zergatik behar da heziketa soziolinguistikoa bat? Aracil (1979) honela azaldu zigun, zuhurtasun handiz azaldu ere: “Hain zuzen ere, soziolinguistikak jarrera guztiz gizatiarra harrarazten digu hizkuntzaren aurrean orokorki (baita, ezinbestean, hizkuntzen eta bakoitzaren barietatearen aurrean ere). Hizkuntzalaritza zehatzak ezin digu lagundu hizkuntza benetan ulertzen eta balioesten, egiturara murrizten baitu eta erabilera ez baitu aintzat hartzen. Eta, hain zuzen ere, erabilera da hizkuntza eta gizarte-jarduera gizatiarra estuki eta nahaspilatuki lotzen dituena”.

Lehenik eta behin pentsatu behar dena zera da, ea benetan posible den ikasleei hizkuntza-erabilerarako arau berriak erakustea. Arazo hori oraindik ezin izan dugu konpondu gaur egungo Espainiarekiko mendekotasun-garaiari, eta oso zaila izango da horrelako egoera batean konpontzea.

Duela urte batzuk, Bigarren Hezkuntzako *curriculumak* behar duen aldaketa sakonari buruzko proposamena egin nuen⁴. Hala ere, ez gara kontu horretaz arituko. Esan beharra dago Soziolinguistikak diziplina gisa ez lukeela Bigarren Hezkuntzan eta Filologia Katalaneko eta Linguistika Orokorreko espezialitateetan bakarrik egon beharko. Irakasle Ikasketetako funtsezko irakasgai bat izan beharko luke (izan ere, Soziolinguistika Orokorreko irakasgai bat eta Heziketa Soziolinguistikoko beste bat irakastea proposatzen dut) eta Soziolinguistikak (hautazko edo enborreko) irakasgaia izan beharko luke ikasketa askotan; besteak beste, Historian, Soziologian, Zuzenbidean, Politika Zientzietan, Giza Zientzietan, Kazetaritzan eta Komunikazio Zientzietan, Pedagogian eta Gizarte Psikologian. Arrazoi berberak direla eta, Filologiako ikasleei erraztasunak eman beharko litzaizkieke beste irakasgai batzuk jasotzeko, soziologia-koak eta historiakoak, adibidez.

Generalitateko hainbat hezkuntza-departamentuk kultura arteko eredu hartzea erabaki zuten. Eredu horrekin, hiltun bakoitzari bere hizkuntzan egiten zaio, posible den heinean, eta katalana ikasteko ahal diren erraztasun guztiak ematen zaizkio.

Hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dituzten etorkinen gorakadak eragindako aldaketa aukera bat izan daiteke hezkuntzako hizkuntza-politika berriz pentsatzeko eta hobetzeko. Aldaketa irudimen soziolinguistikoa arekin (eta indarrarekin) egiten bada, AUKERA bat izan daiteke.

Ikuspegi soziolinguistikoari esker, gure gazteek ikusiko lukete gutxitutako hizkuntza batean irakaskuntza- eta ikasketa-prozesuak zailtasunekin topo egiten duela oinarritzko hiru faktoretan: (1) hizkuntza-kodeaz jabetzea, (2) hizkuntza erabiltzeko eremuak egotea (edo ez egotea), eta (3) hizkuntza ikasteko jarrera lagungarriak izatea. Hain zuzen ere, *Diccionari de sociolinguistica* lanak azpimarratzen dituen kontzeptuen artean daude motibazioaren garrantzia, hizkuntzaren erabilgarritasunaren perzeptzioa, hizkuntza-kontzientzia eta hizkuntza-erabilera.

Hasiera batean, eta egoera soziolinguistiko normalizatu batean, inork ez ditu hizkuntzarekiko jarrera negatiboak. Hizkuntza-aurreiritziak gutxitze-egoeretan izaten dira eta, beraz, soziolinguistikaren irakaskuntzak jarrera horiek hobetzen lagundu dezake. Horren ondorioz, ikasketa erraztu eta hizkuntza-gaitasuna hobetuko da. Orduan, zirkuitu osoaren berrelikadura gertatuko da: gaitasuna handiagoa denez, ikasketa-prozesua hobetu egiten da eta jarrerak positiboagoak dira, etab.

Hala eta guztiz ere, nerabegaroko jarrerak hiru esperientziatik abiatuta bakarrik hobetu daitezke: (1) jarrera jakin batzuk eta gazteak ikasten duen ikastetxeko irakasleen hizkuntza-aukeraketa jakin batzuk behatuta (funtsezkoak dira, esaterako, Gorputz Hezkuntzako eta Filosofiako irakasleak ere), (2) testuen bidez errealitate soziolinguistikoari buruz hausnartuta (testu soziolinguistikoaren iruzkina), (3) eskolaz kanpoko giroan erabiltzeko beharrak jarrera positiboak bultzatuta edo lagunduta (auzo askotan eskolaren ondorengo etapan bakarrik da posible).

Baina, ez du askorako balioko, ikastetxeko ikasleen artean galdeketak egin edota auzoko kioskoetatik eta Internetetik safariak egin ondoren, gure ikasleek Herrialde Katalanetako egoera soziolinguistikoa hizkuntza-ordezkapen bat dela ikastea. Zertarako balioko du, soziolinguistika errealitate soziolinguistikoaren positibo bihurtzeko tresna bat izan daitekeela ikasten ez badute?

Beraz, Bigarren Hezkuntzan (eta Unibertsitatean) irakatsi beharreko Soziolinguistikak ez du errealitatearen deskribapen soila izan behar, hori fonetika gramatikarekin nahastea bezala izango bailitzateke. Deskribatu baino gehiago egin behar da, eta gizarte- eta kultura-prozesuak azaltzen diren eremuan sakondu behar da. Mendeko hizkuntzak hizkuntza-ordezkapenera bultzatu eta bultzatzen jarraitzen dituzten mekanismoak zeintzuk diren ulertzen badu gazteak, errazagoa izango zaio hizkuntza-normalizazioa sustatzen duten mekanismo psikosozialez eta merkatu- eta politika-mekanismoez jabetzea. Gainera, prozesu historiko honetan gazteak berak duen paper aktiboaz ohartzeko aukera izango du.

Bigarren Hezkuntzan, gatazkaren soziolinguistikaren funtsezko gaiak diziplinartekotasunaren bidez landu daitezke (hizkuntza-literatura-soziologia-historia) baita oso bestelako beste gai batzuen bidez ere; besteak beste, norberaren hizkuntza-jarreraren autoebaluazioa, Europako errealitate soziolinguistikoa azterketa; soziolinguistikari buruzko zientzia-fikziozko narrazioak, Nova Cançóren eta rock katalanaren historia eta testuak, pentsamendu eta saiakera ekoidiomatikoa, eta katalanaren gizarte-historia.

Soziolinguistikaren irakaskuntza nolabait desegitearekin batera, immigrazio berriko biztanle horien artean hizkuntza dinamizatzeko eta indartzeko dinamiketan zentratu da irudimena (hamarkada bakar batean atzerritar-kopurua %0,7tik %14ra igo baita), batzuetan ez baitakite ez gaztelania ezta katalana ere. Horregatik, ikastetxe askotan hizkuntza-laguntzako jarduerak egin dira Lehen Hezkuntzan eta bikote edo tandem linguistikoa Bigarren Hezkuntzan. Azken horretan, ikasle-talde batek katalana irakasten dio pareko ezaugarriak dituen beste talde bati.

Hizkuntza-erabilerako arau kaltegarriak⁵ asko dira. Arau horiek herrialdeko hizkuntzan hartuak izateko eskubidea kentzen die atzerritarrei eta beharrezko gizarte-kohesioa, zuzentasuna eta aukera-berdintasuna mugatzen dituzte. Gizarte zibilak, arau horiekin puskatzeko, beste jarduera batzuk gauzaten ditu: irudimen-esperientziak; esaterako, Hizkuntzarako Hezkuntza Tailerrak (TEL), Quedem?, Xerrem eta hizkuntza-bikoteak. Omnium erakundearen elkarrizketa-taldeak, Plataforma per la Llengua, Katalanaren Aldeko Erakundearen Koordinakundea (CAL), Katalanaren Aldeko Erakundearen Federazioa (FOLC); hau da, hizkuntza-militantzia antolatua.

Unibertsitateetako fakultate bakoitzeko hizkuntza-zerbitzuek helburu hori bera duten antzeko hiritar-esperientziak egin dituzte eta liburu eleantunak argitaratu dituzte (katalana-gaztelania-aranesa-euskara-galegoa). *Guia de conversa universitària* (2007), esate baterako.

Baina ez hizkuntza-boluntarismo antolatutik, ezta hezkuntzatik abiatuta ere (linguistikoa edo soziolinguistikoa) ezingo diogu hizkuntza-ordezkapenaren prozesuari buelta eman. Beraz, akademikoa ez den erronka bat daukagu (erabat politikoa) aurretik: Espainiarekiko mendekotasun administratiboak hizkuntza-komunitate katalana mendeant jartzen du, menpeko adimenak eta adimen automugatzaileak bereizten ditu, hizkuntza-komunitate katalana zatitzen du eta berrintegratze soziolinguistikoa oztopatzen du; espainolak eta frantsesak egiten duten katalanaren ordezkatze-fenomenoa ikusezin bihurtzen du, ekintza nor-

Zergatik behar da heziketa soziolinguistikoa bat? “Hain zuzen ere, soziolinguistikak jarrera guztiz gizatiarra harrarazten digu hizkuntzaren aurrean orokorki”.

Esan beharra dago Soziolinguistikak diziplina gisa ez lukeela Bigarren Hezkuntzan eta Filologia Katalaneko eta Linguistika Orokorreko espezialitateetan bakarrik egon beharko. Irakasle Ikasketetako funtsezko irakasgai bat izan beharko luke.

malizatzaileen “super-ikuspen erru-egozlea” bultzatzen du eta Herrialde Katalanetako berezko hizkuntza historikoarenganako jarrera desleialak berrelikatzen ditu. Horrelako egoera batek ia-ia ezinezko egiten du heziketa soziolinguistikoa. ●

BIBLIOGRAFIA KOMENTATUA, ARTIKULUAN AGERTZEN DEN ORDENAN

MOLLÀ, Toni; PALANCA, Carles: *Curs de sociolingüística 1*, Bromera, Alzira, 1987.

Hiru liburukitako lehenengoa. Bilduma hau soziolinguistika irakasteko erreferentzia-puntu bilakatu da. Liburuki guztietan azalpenak eta lan-proposamenak adibidez adierazten dituzten testuak daude.

Lehenengo liburuki honetan, ondorengo gaiak jorratzen dira: hizkuntzalaritza eta soziolinguistika; hizkuntzen mundua (hizkuntza-aniztasuna, dialektoak eta hizkuntzak, hizkuntza gutxituak eta gutxiengoaren hizkuntzak); hizkuntzaren barietateak eta erregistroak; elebitasunaren alderdiak; diglosiari buruzko zenbait ohar; irakaskuntza, hizkuntza eta gizarteak; eta katalanaren demografia- eta kultura-egoerara sarrera.

MOLLÀ, Toni; VIANA, Amadeu: *Curs de sociolingüística 2*, Bromera, Alzira, 1989.

Bigarren liburukian, gai hauek lantzen dira: hizkuntza-komunitatea; gizarte-memoriaren sistemak; arauak eta esanahiak; hizkuntzen legeak (hemen Espainiako estatuko hizkuntza-legeria ere aipatzen da); eta aldaketa soziolinguistikoko prozesuetara sarrera.

MOLLÀ, Toni; VIANA, Amadeu: *Curs de sociolingüística 3*, Bromera, Alzira, 1991.

Hirugarren liburukian, gai hauek lantzen dira: hizkuntza-ordezkapena; atzerakada eta desagertzea; hizkuntza-normalizazioa; eta baliabideak eta programazioa.

MOLLÀ, Toni: *Manual de sociolingüística*, Bromera, Alzira, 2002.

Aurreko hiru soziolinguistika-ikastaroak eguneratzen, berrikusten eta biltzen dituen liburua.

SOLÉ I CAMARDONS, Jordi: *Sociolingüística per a joves. Una perspectiva catalana*, Edicions de la Federació d’Entitats Culturals del País Valencià, Xirivella, 1987.

Bigarren Hezkuntzan soziolinguistika irakasteko klasiko bat (erreferentzia egiten diogun lehenengo argitaraldiaz gain, beste 14 argitaraldi egin ditu La Llar del Llibre argitaletxeak eta, ondoren, Biblària argitaletxeak). Egileak soziolinguistikaren oinarritzko alder-

diak egituratzen ditu, eta diziplinan erabilitako kontzeptuen definizio argi eta zehatzak ematen ditu. Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako hainbat lan-proposamen egiten ditu. Ematen dituen azalpenak hizkuntza-komunitate katalanaren errealitatearekin lotzen ditu. Egilearen tesiek, argi eta garbi, hizkuntza babestearen aldeko mugimenduarekin bat egiten dute.

SANZ, Rosa; RUIZ, Francesc: *Quaderns d'activitats*, Tàndem Edicions, Valentzia, 1990.

1 eta 8 koadernoetan (bilduma 8 koadernok osatzen dute), garai hartako UBIko programaren zati bati jarraituz, egileek soziolinguistikako oinarritzko kontzeptuak jorratzen dituzte, baita Herrialde Katalanetako gaur egungo egoera soziolinguistikoa ere. Gida Didaktikoa (1992) eskura izatea oso interesgarria da.

SOLÉ I CAMARDONS, Jordi: *Text i context. Lectures des de la sociolingüística*, La Magrana, Bartzelona, 1991.

Ikuspegi soziolinguistikoa oinarrituta, egileak literatura-testuen eta testuinguru historiko, sozial eta politikoen arteko lotura bilatzen du. Beraz, honako idazle hauek idatzitako testuak aztertzen dira; besteak beste, Ramon Llull, Ramon Muntaner, Jaume Gassull, Bernat Fenollar, Cristòfor Despuig, Bonaventura C. Aribau, Jacint Verdaguer eta Narcís Oller. Kapitulu bakoitzak, idazle horietako bati buruzkoak, amaieran ariketa-multzo handia du.

SOLÉ, Jordi: *Les paraules del futur*, Eliseu Climent, Editor, Valentzia, 1995.

Egileak sarreran dioenez, ikerketa soziolinguistikoaren ondorioz hasi zen diskurtso soziolinguistikoaren aitzindariak aztertzen eta, horren ondoren, nazioarteko hizkuntza artifizialekiko interesa piztu zitzaion. Etorkizuneko hizkuntza sortu nahi zuen mundu berriaz ohartu zenean, egileak zientzia-fikzioari ekin zion, etorkizunean interesa duen generoa baita. Zientzia-fikzioan hizkuntzek duten papera ikertzea da iraganaren eta etorkizunaren arteko bidaia zoragarri baten azken helmuga; hau da, erabilera eta harreman idiomatikoari dagokionez, literatura-genero horrek duen ikuspegia ikertzea.

Gainera, liburuak hamabost testu biltzen ditu, baita katalanez idatzitako eta katalanera itzulitako zientzia-fikziozko eleberrien bibliografia bat ere.

ARTIGUES, Antoni; CALAFAT, Rosa: *Ecologia lingüística*, La Busca, Bartzelona, 1998.

Hitzaurrean azpimarratzen denez, liburuaren helburua diskurtsoaren manipulazioari estalkia kentzearen alde lan egitea da; hau da, irakurtzak irakastearen alde egitea. Horregatik, lanak egunkarie-

**Egoera
soziolinguistikoko
normalizatu
batean, inork ez
ditu
hizkuntzarekiko
jarrera
negatiboak.
Hizkuntza-
aurreiritziak
gutxitze-
egoeretan izaten
dira eta, beraz,
soziolinguistikaren
irakaskuntzak
jarrera horiek
hobetzen lagundu
dezake.**

tako testuak eta tituluak ematen ditu ikasleekin hainbat kontu lantzeko; esaterako, hizkuntzaren batasuna eta ekolinguismoa.

BARRIERAS, Mònica; JUNYENT, Carme; VILARÓ, Sergi: *Quadern d'ESO de la diversitat lingüística*, Octaedro, Bartzelona, 2000.

Liburu hau GELA (Arriskuan dauden Hizkuntzen Ikerketa Taldea) proiektuaren parte da, eta ikasleekin hizkuntza-aniztasuna lantzea da xedea. Material honekin irakasleek kreditu bat antola dezakete, eta horren helburuak asko dira; adibidez, munduko hizkuntza-aniztasuna ezagutzea, hizkuntza guztien berdintasuna ulertzea, hizkuntza-aurreiritziekiko jarrera kritiko bat bultzatzea, hizkuntza-ukipenaren osotasuna agerian uztea, munduko hizkuntza-homogeneizazioaren prozesuari buruz hausnartzea, hizkuntzen hiltzeko arriskuaz ohartaraztea... Liburuaren osagarri gisa 2000. urtean ere argitaratutako gida didaktikoa dugu. 2001ean, gaztelaniazko itzulpena argitaratu zen.

JUNYENT, Carme: *La diversitat lingüística*, Octaedro, Bartzelona, 1999.

Liburu hau GELA (Arriskuan dauden Hizkuntzen Ikerketa Taldea) proiektuaren parte da. Irakaskuntzako profesionalei eta hizkuntzaren fenomenoetan interesa duten irakurleei zuzendua dago. Hala ere, egileak bere liburuetan erabiltzen duen estiloa oso ulergarria da eta, beraz, Batxilergoko ikasleentzat ere aproposa da. Helburu nagusia hizkuntza-dibertsifikazioaren mekanismoak azaltzea da; hau da, ingurura egokitzeko bitartekaritza-lanak egiten dituen fenomeno naturala dela ulertaraztea, eta ez, ostera, komunikaziorako oztopo bat. Beste hizkuntzetako maileguak diren hitz katalanen zerrenda interesgarri bat ere topatuko dugu, baita hizkuntza-zerrenda luze bat ere.

BOIX, E.; VILA, F. X.: *Sociolingüística de la llengua catalana*, Ariel, Bartzelona, 1998.

Unibertsitateko gidaliburu honek hizkuntzek gizartean duten paperean sakondu nahi du. Gainera, ikerketa soziolinguistikokoaren joera nagusiak aurkezten ditu gure errealitate soziolinguistikoko adibideekin. Hizkuntza-komunitate katalaneko egoera soziolinguistikoa hobeto ulertzeko jarduera praktikoa asko proposatzen ditu.

GIMENO, F.; MONTROYA, B.: *Sociolingüística*, Universitat de València, Valentzia, 1989.

PUEYO, Miquel: *Llengües en contacte en la comunitat lingüística catalana*, Universitat de València, Valentzia, 1991.

SOLÉ I CAMARDONS, J.: *Iniciació a la sociolingüística*, Barcanova, Bartzelona, 1992.

CASTELLANOS, Carles; JOAN, Bernat: *Llengua i variació*, Oikos-tau, Vilassar de Mar, 1993.

JOAN, Bernat: *Llengua estàndard en l'ensenyament*, Oikos-tau, Vilassar de Mar, 1993.

HUGUET, Josepa; SERRA, Blanca: *El jovent opina*, Oikos-tau, Vilassar de Mar, 1993.

ZENBAITEN ARTEAN: *Història de la llengua catalana*, Oikos-tau, Vilassar de Mar, 1994.

SOLÉ, Jordi: *El poliedre sociolingüístic. Una iniciació a la sociolingüística del conflicte*, Editorial 3 i 4, Valentzia, 2001.

Soziolinguistika-gidaliburua. Soziolinguistikako kontzeptu nagusien berrikustea da. Batez ere, gatazkaren soziolinguistika eta ekodiatmatika jorratzen ditu, eta katalanak irakaskuntzan duen egoerari buruzko hausnarketa bat ere aurki daiteke. Hein batean, liburu honek duela urte batzuk egilearen agortutako beste liburu bat ordezkatzan du; *Iniciació a la sociolingüística* (Barcanova, 1992) izenekoa.

COTANO, Àngela: *Les llengües minoritzades d'Europa*, Eliseu Climent, Editor, Valentzia, 2000.

RUIZ, Francesc; SANZ, Rosa; SOLÉ, Jordi: *Història social i política de la llengua catalana*, Editorial 3 i 4, Valentzia, 1996.

Publiko zabalari eta, batez ere, Batxilergoko ikasleei zuzendutako Herrialde Katalanetako historia soziolinguistikoa. Liburu honetako aztergaiak dira erabilera eta gatazka idiomatikoak, ideologiak, hizkuntzaren estatus soziala eta hizkuntza baldintzatzen duen testuinguru politikoa. Laburbilduz, hizkuntza, gizartea, kultura eta boterearen arteko erlazioen interpretazio bat.

JOAN, Bernat: *Un espai per a una llengua*, Eliseu Climent, Valentzia, 1998.

Ikuspuntu soziolinguistikotik, gertakari sozialaren hainbat alderdi aztertzen dituen testu-bilduma da. Liburua hiru ataletan banatuta dago. Lehenengoan, gizarte-psikologiaren eta soziolinguistikaren arteko lotura aztertzen da. Bigarrenaren, hizkuntza-problematikaren eta hezkuntza-munduaren zerikusia da gaia (kasu askotan, Balear Uharteetako egoerari erreferentzia egiten zaio). Hirugarrenean, hizkuntza-politikako kontuak jorratzen dira; adibidez, zeinek edo zeintzuk izan behar duten katalanen nazioarteko erlazioetarako hizkuntzak testuinguru europarrean.

JOAN I MARÍ, Bernat: *Normalitat lingüística i llibertat nacional*, in Contextos bilduma, Edicions 3 i 4, Bartzelona-Valentzia, 2002. *Les normalitzacions reeixides* liburuaren garapena, 1996.

XX. mendeko Europako hizkuntza nazionalen eraikuntzari buruzko ikerketara hurbilketa. Poloniera, finlandiera, hebreera, norvegiera, islandiera, txekiera eta hungariera aztertzen dira. Emaizta

**Bigarren
Hezkuntzan (eta
Unibertsitatean)
irakatsi
beharreko
Soziolinguistikak
ez du
errealitatearen
deskribapen soila
izan behar.**

txarra izan zuen kasu bat ere aipatzen da; irlandera. Azkenik, katalanaren kasuaz ere hitz egiten da. Egileak aurreko testuaren berri-kuste bat egiten du eta hiru kapitulu berri gehitzen ditu; XII. Emaizta onak izan dituzten hizkuntza-normalizaziorako prozesu berriek (Lituania, Letonia eta Estonia); XIII. Hizkuntzaren batasuna eta hizkuntza-sezesionismoa: motibazio politikoak; XIV. Independentziaren hipotesiaren inguruan.

JOAN, Bernat: *Integració sociocultural a Eivissa i progrés acadèmic*, Editorial Mediterrània-Eivissa, Eivissa, 2001.

Mallorcako, Eivissako eta Formenterako bost institututan egindako ikerketa honetan, egileak datuekin defendatzen du hoberen integratuta daudenek ikasketak amaitzeko joera handiagoa dutela gure gizartean, “burbuila babesleen” barruan daudenek ez bezala (elebakartasun espainola mantentzea, harrera-herrialdearekin gutxi identifikatzea, jatorrizko herrialdeko ospakizunetan bakarrik parte hartzea...). Laburbilduz, ez errotzea (eta, alde horretatik, hizkuntza da punturik garrantzitsuena) faktore arriskutsua da eskola-porroterako.

JOAN, Bernat: *Sociolingüística a l'aula*, La Busca, Barcelona, 2002.

JOAN I MARÍ, Bernat: *Treballar actituds lingüístiques*, Editorial Mediterrània-Eivissa, Eivissa, 2002.

Hizkuntzen ikasketan funtsezko hiru oinarriak hauek direla dio egileak: hizkuntza-kodeez jabetzea; alor akademikoan ikasi dena burutzeko zenbait eremu egotea; eta hizkuntzak ikasteko jarrera lagungarriak egotea. Katalanarena bezalako gutxitze-prozesuetan, gazteek zailtasunak topatuko dituzte lehenengo bi oinarrietan, ez baitituzte katalana erabiltzeko nahikoa erabilera-eremu izango eta gutxitutako hizkuntza-aurreiritziez eta jarrera negatiboez inguratuta biziko baitira. Joanek dioenez, irakasleek ez dute informatzaile hutsak izan behar, eta ideia hori Bigarren Hezkuntzan hizkuntza-jarrerak jorratzeko moduari buruzko lan batean garatzen du. Beste atal batean, hizkuntza-koordinatzaileek Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan duten papera aztertzen du. Hirugarren kapituluan, ikasleen hizkuntza-gaitasuna neurtzeko elementu orientatzaileak ematen ditu. Azken kapituluan, Batxilergoko bigarren mailan Soziolinguistika lantzeko moduaz hitz egiten du. Liburu osoan zehar, dinamikoki nahasten da gizarte-psikologiatik eta ariketa praktikoen azalpenetik egindako hausnarketa teorikoa, eta ikasleen jarrera idiomatikoak hobetzeko proposamenak egiten ditu, jarrera hobeago batek hizkuntzaren ikasketa eta hizkuntza-gaitasuna errazten baititu.

ZENBAITEN ARTEAN: *Enciclopèdia de la llengua catalana*, Edicions 62, Barcelona, 2001. (Zuzendaria: Francesc Vallverdú; koordinatzailea: Jordi Bañeres)

429 orrialdeko entziklopediak hainbat konturi buruzko informazio zehatza du; hizkuntzaren historia, katalanaren egitura eta erabilera, egungo egoera, hizkuntzaren eta komunitate hiztunaren lotura, eta katalanaren lekua munduan. Lan hau azterketa soziolinguistikoaren adierazgarri ona da hizkuntza baten errealitatea aurkeztu nahi baldin badugu, gaikako bost bloke handietan artikulua askok izaera soziolinguistikoa baitute.

SERVEIS LINGÜÍSTICS: *Guia de conversa universitària*, Universitat de Barcelona, Barcelona, 2007.

• • **BESTE ZENBAIT LIBURU OROKOR ETA SOZIO-LINGUISTIKAKO ETA IRAKASKUNTZAKO LIBURUAK**

FUSTER, Joan: *Escrits sobre la llengua*, Joies de paper, Barcelona, 1994.

Hizkuntzari buruzko lanen eta hizketaldien egilearen pentsaera soziolinguistikoa ezagutzeko ezinbesteko bilduma. 1962tik 1991ra. Besteak beste, Ninyolesen *Idioma i prejudici* lanaren sarrera eta "Ara o mai" klasikoak aurkituko ditugu. Sarrera eta aukeraketa Marisa Boltak eta Toni Mollàk egin dute.

JOAN, Bernat (koord): *Llengua i ensenyament a Eivissa*, Can Sifre, Sant Jordi de ses Salines, 1992.

Eivissako Batxilergoko institutuetaiko ikasleen, gurasoen eta irakasleen hizkuntza-erabileren eta -jarrerren azterketa enpirikoa. 1990-1991. ikasturtean egin zuen Eivissako Irakasleen Zentroko Soziolinguistika Aplikatuko Lantaldeak, institutuetaiko hamasei maisu eta irakaslek osatutakoak.

BADIA I CAPDEVILA, Ignasi: *Diccionari de les llengües d'Europa*, Enciclopèdia Catalana, Diccionaris Temàtics bilduma, Barcelona, 2002.

RUIZ, Francesc; SANZ, Rosa; SOLÉ, Jordi: *Diccionari de Sociolingüística*, Enciclopèdia Catalana, Barcelona, 2001.

LLADÓ, Joana; LLOBERA, Miquel: *Reflexions i propostes per al tractament de les llengües en els centres d'ensenyament*, Editorial Moll, Palma, 1999.

• • **LEHEN HEZKUNTZAN SL LANTZEKO**

GELA: *La carpeta de la diversitat lingüística*, Cicle Inicial de Primària, Octaedro, Barcelona, 2003.

Lídia Torresen ikasmateriala. Manel Barrierasen eta Sergi Vilaró-ren ipuina. Patrícia Tutusaus-en ilustrazioak.

**Mendeko
hizkuntzak
hizkuntza-
ordezkapenera
bultzatu eta
bultzatzen
jarraitzen
dituzten
mekanismoak
zeintzuk diren
ulertzen badu
gazteak,
errazagoa izango
zaio hizkuntza-
normalizazioa
sustatzen duten
mekanismo
psikosozialez eta
merkatu- eta
politika-
mekanismoez
jabetzea.**

Igel batzuen arteko elkarriketatik abiatuta, hizkuntza bat zer den eta ea guztiok hizkuntza berdina hitz egiten dugun galderei erantzuten zaie. Beste ipuin batekin, amharera hizkuntza afrikarrean hitz eta zenbaki batzuk ikasten dira; koreeraz buru-hausgarri bat egitea proposatzen da; gorputzeko atalak maputxeraz ikasten dira eta tehueltxe hizkuntzan pintatzen da. Liburu-amaierako ipuinak hizkuntza-aniztasunari eta hizkuntzen desagerpenari buruzko go-goeta bat egiten du.

GELA: *La carpeta de la diversitat lingüística, Cicle Mitjà de Primària*, Octaedro, Bartzelona, 2003.

Virginia Unamunoren ikasmateriala. M. Carme Junyenten ipuina. P. Tutusaus-en ilustrazioak.

Ikaslearen alde aurreko ezagutzetan eta ikasgelako, auzoko, lagunarteko eta ospetsuen arteko hizkuntza-errealitatean oinarrituta hizkuntza-aniztasuna lantzen da. Hainbat hizkuntzatan eskerrak emateko jolasa. Guaranieraz idatzitako ipuin baten iruzkinak egitea proposatzen da. Beste ipuin baten bidez hizkuntza artifizialak lantzen dira.

GELA: *La carpeta de la diversitat lingüística, Cicle Superior de Primària*, Octaedro, Bartzelona, 2003.

Meritxell Freixinet-en ikasmateriala eta Mònica Barrierasen ipuina.

Gai orokorrak landu ondoren, aragoieraren kasuan, etimologia-hiztegiaren, maileguetan eta hizkuntza-familiatan jartzen dute arreta. Iratxoei buruzko ipuin baten bidez, hizkuntza bati lotutako munduaren garrantziari buruz hausnartzen da.

CIEMEN: *Petita història de la Llengua Catalana*, Col·lecció Petites històries, Editorial Mediterrània, Bartzelona, 2003.

Testua Eusebi Coromina filologoarena da eta ilustrazioak Pilarin Bayés-ek egin ditu. Umeentzako lan honek katalana hitz egiten den lekuetan hizkuntzak zer egoera duen azaltzen du, baita hizkuntzaren jatorria, garai onenak, azken mendeotan jasandako errepresioa eta normaltasunaren aldeko borroka ere. Herrialde Katalanetako historia soziolinguistikoa ilustratu bat da.

ARACIL, Lluís V.: "Educació i sociolingüística" in *Treballs de sociolingüística catalana*, 2, Editorial 3 i 4, Valentzia, 1979. Baita ere in ARACIL, L.V.: *Papers de sociolingüística*, La Magrana, Barcelona, 1982.

ZENBAITEN ARTEAN: *Llengua catalana i literatura. 1er Batxillerat*, Editorial Cruïlla, Bartzelona, 2002.

MAYANS, Pere; SANZ, Vicent: *Sociolingüística a Secundària*, www.xtec.es/seedec/socioling1.doc, 2001eko azaroa.

SIGUAN, Miquel: *Bilingüisme i educació*, Teide, Bartzelona, 1976.

SOLÉ I CAMARDONS, J.: "Reflexions i propostes entorn de l'ensenyament del català i el context sociolingüístic" in ZENBAITEN ARTEAN: *Segon simposi sobre l'ensenyament del català a no-catalanoparlants*, Eumo, Vic, 1991.

EUSKAL PROPOSAMENA

Jakintza soziolinguistikoa Katalunian zabaltzea. Zer azpimarratuko zenuke orain arte egin diren gauzetatik eta orain egiten ari direnetatik?

Soziolinguistika hezkuntzan eta pedagogia soziolinguistikoa: Orain arte egindakotik, zer "jardunbide egoki" nabarmenduko genituzke? Zer eduki landu beharko lirateke eskolan? Nola? ...

Jakintza soziolinguistikoaren "beharra nabaritzea", eremu teknikoan eta eremu "sozialago" batean: hausnarketa etorkizunera begira.

OHARRAK

1. DALMAU, Delfí: *Políglotisme passiu*, 1936. Orain dela gutxi berrargitaratu da: DALMAU, Delfí: *Políglotisme passiu i altres escrits*, Voliana Edicions, Argenton, 2010.
2. NINYOLES, Rafael L.: *Idioma i prejudici*, Moll, Palma de Mallorca, 1971.
3. SOLÉ I CAMARDONS, Jordi: *Per una educació sociolingüística*, Escola Catalana, 2003ko apirila.
4. SOLÉ I CAMARDONS, Jordi: "Per una reforma de l'assignatura de llengua catalana" in "Reflexions i propostes entorn de l'ensenyament del català i el context sociolingüístic", 1991.
5. SOLÉ I CAMARDONS, Jordi: *¿Es possible formar o educar en actituds lingüístiques?*, Escola Catalana, 2009ko abendua.